

## **BARAKALDO KIROLAK ERAKUNDEAREN ZUZENDARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO OINARRIAK ETA DEIALDI PUBLIKOA.**

Alkatetzaren 2021eko urtarrilaren 15eko 15. dekretuaren bidez Barakaldo Kirolak erakundearen egungo zuzendaria izendatu zen. Izendapena behin-behinekoa izan zen, harik eta zuzendaria Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 85 bis) artikuluan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren 13. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 36. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dutenarekin bat etorritz hautatu arte.

Udalak lanpostu hori bete nahi du.

Lanpostu hori nahitaezkoa da, eta legez eta estatutuz eratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 85 bis artikuluan xedatzen duenaren arabera eta, horrekin lotuta, erakunde horren estatutuek 8. eta 19.1 artikuluetan xedatzen dutenaren arabera. Horregatik, lanpostua bete behar da.

Horrenbestez, Barakaldo Kirolak erakundearen zuzendariaren lanpostua beteko duen pertsona hautatzeko prozesua hasi behar da.

Barakaldo Kirolak erakundearen Estatuak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, alkatetzak honako hau

### **EBAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.**-Barakaldo Kirolak erakundearen zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoaren oinarriak onesteak. Ebazpen honi erantsita daude.

**BIGARRENA.**-Lanpostua beteko duen pertsona hautatzeko prozesua hastea oinarri horiekin bat etorritz.

**HIRUGARRENA.**- Honen berri ematea Zuzendaritza Kontseiluari egiten duen lehen bilkuran.

**LAUGARRENA.**- Oinarriak osorik argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta iragarkia argitaratzea Bizkaiko Lurralde Historikoan gehien saltzen diren egunkarietako batean.

## **BARAKALDO KIROLAK TOKI-ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZUZENDARIA HAUTATZEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.**

**Lehenengoa:** Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da “Barakaldo Kirolak” toki-erakunde autonomoaren zuzendaria kontratatzea goi-zuzendaritzako kontratuko lan-araubidearekin; hona xehatuta:

- Izena: Zuzendari kudeatzailea.

-Goi-zuzendaritzako kontratua, 1382/1985 Errege Dekretuarekin bat etorritz (1382/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duena).

-Taldea: A Azpitaldea: A1.

-Hautaketa: Izendapen askeko sistemaren bidez.

-Titulazioa: Goi.mailako tituluduna.

-Ordainsaria: urteko soldata gordina: 75.439,16 euro.

-Bateraezintasunak: Abenduaren 26ko 53/1984 Legearen bateraezintasunen araubidea aplikatzen zaio.

-Egitekoak: Presidentearen mendean dagoela, zuzendari kudeatzaileak erakunde autonomoaren zuzendaritzako eta administrazio arrunteko lanak egingo ditu, estatutuen 19. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Horrenbestez, erakunde autonomoak estatutuetan ezarrita dauzkan helburuak lortzeko esleitzen zaizkion lan teknikoak eta zuzendaritza eta garapeneko lanak egin beharko ditu. Batez ere, kirol-zerbitzuen kudeaketaren, erabiltzaileen eskaeren arretaren eta aplikazioen bidez lortzen den informazioaren tratamenduaren eta analisiaren inguruko lanak egingo ditu.

-Eskudantziak: Zuzendari kudeatzaileak estatutuetan ezarritako eskudantziak edukiko ditu (oinarri hauen eranskinean zehazten dira).

**Bigarrena:** Hautagaiek betekizunak.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Oro har:

A) Espainiako nazionalitatea eduki behar dute, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

b) Atazak egiteko gaitasun funtzionala eduki behar dute.

c) Gutxienez hamasei urte eduki behar dituzte, eta ezin dute gainditu nahitaezko erretirorako gehieneko adina.

d) Ezin dira egon baztertuta administrazio publikoen zerbitzutik ez autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoen zerbitzutik diziplina- espediente baten bidez, eta ezin dute eduki desgaitasun absoluturik ez berezirik lanpostu edo kargu publikoetan aritzeko, funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, lan-kontratudunen kasuan, baztertu edo desgaitu aurretik egiten izan dituzten antzeko egotekoetan aritzeko ere. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezin dira egon desgaituta (edo horren pareko egoera batean), eta ezin dute eduki ezarrita norberaren estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik ez horren parekorik.

2. Aurreko betekizunez gainera, lanpostuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuz, deialdi honetan hautagaia izateko:

-Administrazio publikoen karrerako funtzionarioa edo lan kontratupeko langile finkoa izan behar da: A taldea, A1 azpitaldea.

-Edo, bestela, sektore pribatuko profesionala izan behar da, eta bost urtetik gorako esperientzia eduki behar da goi-mailako titulazioa edo unibertsitateko gradu-titulazioa behar den lanpostuetan.

-Aurreko bi kasuetan, ezinbestekoa da administrazio publikoetan edo sektore publikoan 6 hilabete baino gehiago jardun izana ardurako lanpostuetan Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 40.3 artikuluan adierazten diren eremuetan edota egitekoetan.

3. Eskatzen diren betekizunak betetzeko erreferentzia-data eskaerak aurkezteko aldiko azken eguna izango da.

**Hirugarrena:** Deialdian baloratuko diren merezimenduak eta alderdiak:

1. Esperientzia zuzendari kudeatzaile gisa.
2. Esperientzia zuzendaritzako lanpostu generikoetan, 6 hiletik gorakoa.
3. Esperientzia taldeen kudeaketan, 6 hiletik gorakoa.
4. Kirol-kudeaketaren inguruko ezagutzak eta esperientzia.
5. Kudeaketa estrategikoaren eta negozio-kudeaketaren inguruko trebetasunak.
6. Lan egiteko, ekimenerako eta komunikaziorako gaitasunak.
7. Euskararen ezagutza.
8. Atzerriko hizkuntzen ezagutza (ingeleza).
9. Tresna informatikoak erabiltzea.

**Laugarrena:** Eskaerak aurkezteko epealdia, eta onartu eta baztertuen zerrendak.

1. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskaerak Barakaldoko alkate-udalburu andreari bidali behar zaizkio. Eskaerak Barakaldoko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Herritarren Arretarako Zerbitzuan, udaletxeko beheko solairua (Herriko Plaza z/g 48901, Barakaldo). Hautagaiak 15 egun baliodun eduki dituzte eskaera aurkezteko, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Halaber, deialdiaren iragarkia argitaratuko da Lurralde Historikoan gehien saltzen diren egunkarietako batean.

Horrez gainera, eskaerak Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen diren tokietan ere aurkeztu daitezke.

2. Eskaeran hautagaiak adierazi behar dute bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, erreferentzia modura eskaerak aurkezteko epealdiko azken egun harturik.

3. Eskerak aurkezteko epealdia amaitutakoan behin-behinean onartutakoen zerrenda eta baztertutakoen zerrenda argitaratuko dira Barakaldoko Udalaren web orrian, Udalaren ediktuen ohelean eta erakunde autonomoarenean, eta Barakaldoko Informazio Sistemari (BIS). Zerrenda horietan hautagaien nortasun agiri nazionala agertuko da, eta behar denean bazter uzteko arrazoia ere bai.

Baztertuek bost egun baliadun edukiko dituzte akatsak zuzentzeko.

4. Akatsak emandako epealdian zuzentzen ez dituen hautaketa-prozesutik kanpo geldituko da berehala.

5. Akatsak zuzentzeko epealdia amaitutakoan behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, eta behin-behineko zerrenda bezala argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Deialdiko betekizunak, merezimenduak baloratzea eta egiaztatzea, eta aurkezteko unea eta modua.

1. Deialdiaren oinarriak Bizkaiko Foru Aldundian argitaratzen den eguna erreferentzia modura hartuta baloratuko dira merezimenduak, eskerak aurkezteko epealdia amaitzen denean.

2. Eskerarekin batera hautagaiaren NANaren eta curriculum xehatuaren fotokopiak aurkeztu behar dira, eta bigarren oinarriko 2. zenbakian lanpostua eskuratzeko ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiri sinesgarriak ere bai.

Administrazio publiko bateko karrerako funtzionarioa edo lan-kontratadun langilea izanez gero, bertan egindako zerbitzuei buruzko ziurtagiria aurkeztu behar da frogagiri gisa.

Sektore pribatuko profesionalek lan-bizitza aurkeztu behar dute, eta horrekin batera kotizazioei dagozkien lan-kontratuen kopiak. Zer kategoriatan edota egitekotan jardun den zehaztu behar da.

Hautagaia bere konturako langilea, langile autonomoa edo horiekin parekatua bada, lan-esperientzia egiaztatzen duten merkataritza-kontratuak, sozietate-eskriturak eta agiri ofizialak aurkeztu behar ditu, eta Gizarte Segurantzako kotizazioen egiaztagiria ere bai.

3. Horiez gainera, hautagaiak goi-mailako titulazioa dutela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar dute, eta honako guztien frogagiriak ere bai: dauzkaten bestelako titulazio akademiko guztiak, gainerako prestakuntza, hizkuntzen ezagutza, sektore publikoan eta pribatuan jardun duten lanpostuak eta egiten dituzten lanak, eta curriculumean adierazitako merezimenduak, hain zuzen ere hirugarren oinarriaren arabera baloratu ahal direnak eta, horregatik, deialdiaren xede den lanpostuaren egiteko edo atazei dagokienez aipatu beharrezkotzat jotzen dituztenak.

Horrenbestez, gainerako dokumentazioarekin batera lan-esperientzia frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dituzte, honako salbuespen honekin: Barakaldoko Udaleko edo beraren toki-erakunde autonomoetako lanpostuetan jardun badute, nahikoa izango da merezimendua adieraztea, eta frogagiriak Barakaldoko Udalaren Kudeaketa eta Barne Antolamenduko Arloak edo kasuan kasuko erakunde autonomoak jarriko ditu.

4. Jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira.
5. Eskaerak aurkezteko epealdian alegatu eta frogatzen diren merezimenduak baino ez dira baloratuko.

**Seigarrena:** Hautatzeko sistema.

1. Hautaketa-prozeduraren xedea hautagaien lanbide-gaitasunak eta lan-esperientzia egiaztatzea izango da, haien prestakuntza, lanbide-gaitasuna eta lan-esperientzia baloratu ahal izateko deialdiko lanpostuari dagokionez, eta ebazteko egokiak direnez deialdiko lanpostuaren egitekoetan aritzeko. Hautagaiek eskatzen diren lanbide-gaitasunak frogatu behar dituzte.
2. Horretarako, hautaketa-prozesua egiteko eta eskatzen diren gaitasunak baloratzeko, kanpoko enpresa espezializatua kontratatuko da, Euskadiko Toki Erakundearen Legeak ematen duen aukeraz baliatuz. Enpresa horrek deialdian eta gainerako ordenamendu juridikoan ezartzen denarekin bat etorritik egingo du hautaketa-prozesua.

Hautaketa-prozesuan behar diren elkarrizketa pertsonalak egin ahal izango dira hautagaiekin eskaerak aurkezteko epealdian alegatu eta frogatu dituzten baloratu beharreko merezimenduak eratzeko.

3. Horrela, merezimenduen balorazioa, hautaketa-proposamena eta hautatuaren izendapena egintza diskrezionala izango da. Egintza hori, hala ere, arrazoitu egin beharko da.
4. Norbait lanposturako hautatzeko, ezinbestekoa izango da deialdian parte hartzea, deialdian ezartzen diren baldintzak betetzea, eta lanpostuan aritzeko eskatzen diren gaitasun-mailak badituela frogatzea.

**Zazpigarrena:** Komunikazioak eta jakinarazpenak.

Hautaketa-prozesu honek eragiten dituen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Barakaldoko Udalaren web orrian, Udalaren ediktuen ohelean eta erakunde autonomoarenean, eta Barakaldoko Informazio Sistemari (BIS) argitaratuko dira.

**Zortzigarrena:** Zuzendari kudeatzailea proposatzea eta kontratatzea.

1. Kanpoko enpresa espezializatuak bere ustez deialdiko lanpostuan aritzeko egokiena den hautagaia izendatzea proposatuko du.

Deialdiko lanpostua hutsik utzi ahal izango da hautagairik ez aurkezteagatik edo aurkezten diren hautagaiek baldintzak ez betetzeagatik.

2. Enpresaren hautaketa-proposamena ikusita, Alkateak izendatuko du nor kontratatuko den Barakaldo Kirolak toki-erakunde autonomoaren zuzendari kudeatzailea izateko, erakunde autonomoaren Zuzendaritza Kontseiluaren iritzia entzun ondoren. Ebazpena ematen denean, horren berri emango zaio Zuzendaritza Kontseiluari.

3. Hautaketa Barakaldoko Udalaren web orrian, Udalaren ediktuen ohelean eta erakunde autonomoarenean, eta Barakaldoko Informazio Sistemari (BIS) argitaratuko da.

**Bederatzigarrena:** Zuzendari kudeatzailearen kontratazioa, probaldia eta lanpostua uztea.

1. Hautatzen den pertsonari goi-zuzendaritzako kontratua egingo zaio, 1382/1985 Errege Dekretuarekin bat etorriz (1382/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duena).

2. Kontratuak 6 hilabeteko probaldia edukiko du. Aldi horretan hautatutako pertsona izendatu duen agintaritzak lanpostua utzarazi ahal izango dio, baldin eta uste badu ez duela gainditu probaldia.

3. Zuzendari kudeatzailea lanpostutik kentzeko ebazpena ere Alkatetzak hartuko du, Barakaldo Kirolak toki-erakunde autonomoaren Zuzendaritza Kontseiluaren iritzia entzun ondoren. Nolanahi ere, aurretik aplikatzen den araubide juridikoan ezarritako formalitateak bete beharko dira.

4. Lanpostua uzteko ebazpena egintza diskrezionala da; hala ere, arrazoitu egin beharko da.

5. Halaber, Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 40.11 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, norbait zuzendaritzako langile profesional izendatzen denean, lanpostuan jarraituko du kudeaketaren ebaluazioaren emaitzak onak diren artean. Lanpostuan jarraitzeak esan nahi du zuzendari publiko profesionala bere karguan ariko dela hurrengo udal hauteskundeak egiten diren urteko abenduaren 31ra arte. Hauteskunde horiek egin ondoren toki-erakundearen presidenteak erabaki ahal izango du zuzendari kudeatzaileak bere egitekoetan jarraituko duela (beste agintaldi bat gehienez) edo, bestela, zuzendaritzako lanpostua betetzeko hautaketa-prozedura baten deialdia egingo dela.

**Hamargarrena:** Aplikatu beharreko araudia.

Oinarri hauetan ezartzen ez den guztirako, hautaketa-prozesu honetan honako hauetan ezartzen dena aplikatuko da: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa; Barakaldo Kirolak toki-erakunde autonomoaren estatutuak; Herriarrek Parte Hartzeko eta Udal Araudi Organikoa; aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

**Hamaikagarrena:** Aurkaratzeak.

Deialdi hau, beraren oinarriak eta horien ondoriozko egintzak aurkaratu egin daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2022ko otsailaren 17a.

Barakaldo Kirolak toki-erakunde autonomoaren jarduneko presidentea,  
José Ignacio Asensio Novo.



### **ERANSKINA: INDARREKO ESTATUTUETAN EZARRITAKO ESKUDANTZIAK**

Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren zuzendari kudeatzailea administrazioaren eta antolamenduaren ardura daukan zuzendaria da. Horregatik, honako eskudantzia hauek dauzka estatutuen 20. artikulua arabera (kontuan edukita Zuzendaritza Kontseiluak edo presidentek bidezko baimenak eman behar dituztela):

- a) Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiak betetzea eta betearaztea.
- b) Erakundearen programak eta zerbitzuak zuzentzea eta ikuskatzea Zuzendaritza Kontseiluak edo presidentek ematen dituzten gidalerroekin bat etorriz.
- c) Erakundeak behar bezala hartzen dituen betebeharren ondoriozko berariazko ordainketak agintzea.
- d) Kontseiluaren eta erakundearen gainerako kide anitzeko organoen saioetan aritzea, hitzarekin baina botorik gabe. Nolanahi ere, presidentek erabaki dezake saio batzuetan ez daukala zertan egon.
- e) Erakundearen memoria eta aurrekontuak prestatzea (eranskinak barne), eta kontuen likidazioa egitea eta haien berri ematea, Funtzen Kontu-hartzaitzarekin koordinatuta.
- f) Plantilla organikoa eta bakoitzaren ordainsariak prestatzea eta Kontseiluari proposatzea.
- g) Zuzendaritza Kontseiluari edo presidenteari proposatzea langileen kontratazioak eta haien lan-baldintzak.
- h) Makinak, bulegoko materiala eta, oro har, instalazioen jardunerako behar diren gainerako ondasun higigarriak eta hornigaiak erostea proposatzea, Zuzendaritza Kontseiluak edo presidentek ezartzen duten moduan eta haien baimentzen dituzten gehieneko kopuruak kontuan edukita.
- i) Erakundearen unitate operatiboak koordinatzea, urtero (eta Kontseiluak edo presidentek eskatzen duten bakoitzean) haien jardunari, kostuei eta etekinei buruzko memoria eta txostenak egitea, eta erakundearen zerbitzuak hobetzeko proposamenak egitea. Txosten arrunta ekitaldiko lehen hiruhilekoaren barruan aurkeztuko zaio presidenteari.
- j) Presidenteari proposatzea langileak unitateei atxikitzea eta lekualdatzea.
- k) Espedienteetan adieraztea beheragoko unitateen txostenekin ados dagoen edo ez, eta ez badago, zergatik ez dagoen azaltzea; presidentek edo Zuzendaritza Kontseiluak eskatzen dutenean irizpenak ematea; behar dena ezartzea espedienteen izapideetan eta erakundearen jardueren kudeaketan, oro har, behar bezala bete daitezten epealdiak, gauzak emateko epealdiak edo Udalak egiten dituen aginduak betetzeko epealdiak..
- l) Unitateen urteko oporren plana egitea, eta aplikatu beharreko arau orokorren arabera onartzen diren lizentzien eta eszedentzien berri ematea.
- m) Erakundearen Kontseiluak edo presidentek eskuordetzen dizkioten eskudantzia guztiak erabiltzea, estatutuetan ezarritako mugak kontuan edukiz.

